

Idauze-Mendiko maskaradek aurrera jarraitzen dute, eguraldi txarra gorabehera

Igande honetan Mendikotan izango dira eta hurrengoan, berriz, Urdiñarben

Allande Sokarros / Maule

Idauze-Mendiko gazte-riak aurten eskainitako maskaradek eguraldi txarrarekin egin dute topo behin baino gehiagotan. Ondorioz, iragan urtarri-lean argitara eman genuen herriz herriko ateraldien mapan aldaketa batzuk gertatu dira. Maskarada hauen ikusteko aukerarik ez baduzue izan, hona hemen, beraz, azken agerrialdien egunak eta lekuak.

MASKARADAK herriko plazan emateko ikusgarriak dira, han baita benetan bizitzen eta gozatzen ikuslarrengan sortzen duten irrika eta gozamina. Bai, baina, eguraldiak behar du apurtxo bat lagun izan eta, egia erran, Idauze-Mendikoek aurten aurkeztu dizkiguten maskarada agerraldiak ez dute behin baino gehiagotan aro egokirik kausitu.

Hortaz, Idauzen bertan urtarrilaren 10ean egin beharrekoa zen lehen agerraldia ezeztatua izan zen, elurte handia gertatu baitzen bezperan eta Zuberoako hainbat herritatik etortzeko asmotan ziren ikusliarrak etxean geratzera behartuak egon baitziren. Ohiturari jarraituz herrian bertan ematen den lehen agerraldi hori, beraz, ondorengo igandera (urtarrilaren 17ra) atzeratu zen, eta Mendikotan egin beharrekoa martxoaren 7rako finkatu. Haatik, urtarrilaren 17an ere euria izan zen, eta ikusgarria aterpe batean eman zuten maskaradakarik.

Korrikaren zain, maskaradei begira

Ondorengo igandeetan eguraldi txarrarekin egin zuten topo maskaradek, hala nola Altzürükün (otsailaren 7an), eta Muskildin (otsailaren 21ean). Arrokiagan ere, joan den igandean, ez zen aro egokiena; bai, aldiz, entrebalekoa, zubereraz erran ohi denez.

Martxoa etortzearekin, Idauze-Mendiko maskarada emaille gazteek espero dute madarikazio hori galdu egingo dela, nahiz eta hil honek ez duen fama hobereneko horri dagokionez. Dena den,



JAGOBA MANTEROLA

Muskildin duela hiru urte izan ziren bezala, martxoan eta apirilean ere izanen da maskaradak ikusteko parada.

jin beharrekoa jin, igande honetan (martxoaren 7a) maskaradak Mendikotan izango dira.

Hurrengoan (martxoaren 14a), aldaketa bat izango da, Urdiñarbeko herriak baitie harrera egingo, Ligiren orde. Gauza ezohikoa, aldiz, ondo-

rengo astean, zeren eta maskaradak larunbatarekin (martxoaren 20a) emanen baitira Maulen, arratsaldean, Korrika handik igaro baino ordu batzuk lehenago.

Urdiñarbekin trukea eginik, Ligiko herriak ditu hartuko martxoko azken igande-

an (28an). Apirileko ateraldietan, ordea, ez da aldaketarik izango, eta haxe izango da, beraz, maskaraden egutegia: apirilaren 4an, Barkoxen; 11n, Larrainen; 18an, Irurin; eta azken agerraldia apirilaren 28an, Mendin.

Iturriren omenezko koreografia aurkeztu du Victor Ullatek Arriaga antzokian

■ 'Itu... ¿bailas?' lana eta beste hiru eskainiko ditu gaur Bilboko antzokian

M. Arregi / Bilbo

VICTOR ULLATE koreografoak zuzentzen duen Madrilgo Erkidegoko Balletak emanaldi bi eskainiko ditu Bilboko Arriaga antzokian. Lehena atzo izan zen, eta bigarrena gaur izango da. Iaz hil zen Luis Iturri Arriagako zuzendariaren omenezko koreografia ekarri du, besteak beste, Ullatek Bilbora: *Itu... ¿bailas?* izenekoa. «Mozarten musika jarri diot; zerbait poetikoa egin nahi nuen, sentimenduz eta maitasunez josia», azaldu zuen atzo.

Hans Van Manenen koreografiarekin eta Nina Hagen zein Laurie Andersonen musikarekin osatutako *In and out* lanak zabalduko du gaurko emanaldia. Gainontzeko lanak, aipatutako *Itu... ¿bailas?* barne, Ullatek berak osatutako koreografiak dira.

Ullateren konpainiako dantzarien artean badira euskal herritar bi: Marta Rodríguez-Coca eta Rosa Royo bilbotarrak.